

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

HONDARRIBIKO UDALA

Euskara Arloko 2025eko dirulaguntzak emateko deialdia. Xedapena: 2025eko ekainaren 19an, 2025/2012 Dekretua.

Ikusirik Udaltzatzaile behin betiko onartu zituela Dirulaguntzak Arautzeko Udal Ordenantza Orokorra eta Euskara arloko dirulaguntzen oinarri arautzaileen eranskinean egindako aldaketak behin betiko bihurtu zirela Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2025eko ekainaren 12an argitaratuta.

Lehenengo. Euskararen sustapenerako dirulaguntzak emateko lehia bidezko deialdia egitea, 2024-2025 ikasturterako, VII. eranskinak «Euskara Arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak» izenekoak xedatutakoaren arabera.

Bigarren. Dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte:

A) Udan 16 urtetik beherako ikasleentzat euskara ikastaroak antolatzen dituzten Hondarrribiko ikastetxe guztiek: 9.800 €.

B) Euskara sustatzeko ekintzak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarte edo taldeek: 7.000 €.

C) Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten 16 urtetik gorako herritarrek. Baita autoikaskuntza ikastaroak, Barne-erakundeetan ikastaroak edo Unibertsitateetan udan euskaraz euskal kulturari buruz antolatutako ikastaroak egin dituzten herritarrek: 22.000 €.

D) Establezimenduen edo negozioen errotulazioa euskaraz jartzen dutenek: 1.800 €.

E) Webguneak euskaraz jartzen dituzten elkarte, enpresa eta abarrek: 2.000 €.

F) Aisialdiko begirale edo zuzendari zein kirol entrenatzaile ikastaroak euskaraz egin dituztenek: 5.000 €.

Hirugarren. Deialdi honen bidez gehienez 47.600 €-ko zenbatekoa emango da, 1.0204.481.01.335.10 2025 (6154) aurrekontu-sailaren kontura. Zenbateko hau aurreko sei atalen artean banaturik dago eta atalen batean aurrekontu-kreditua agortuko balitz eta besteren batean kreditu erabilgarria geratuko balitz banatu beharreko kopurua agortu ez delako, aplikatu gabe geratu den kopurua beharrezkoa den ataletan erabili ahal izango da.

Laugarren. Eskabideak:

Dirulaguntza eskaera normalizatua aurkeztu beharko da. Inprimakia eskuragarri egongo da Hondarrribiko Udaltzailearen webgunean, BAZen eta Euskara Sailean. Eskabideak atal hauek ditu (bete beharrekoak):

– Beste sail eta erakundearen aurrean eskatutako eta jasotako dirulaguntzei buruzko erantzukizunpeko aitortpena.

– Dirulaguntzaren onuradun izan ahal izateko egoeran egotea egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.

– Proiektu, jarduera, edo egitasmoaren sarrera eta gastuen aurrekontu zehaztua.

AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

Convocatoria de subvenciones del 2025 del Área de Euskera. Disposición: Decreto de Alcaldía n.º 2025/2012 de 19 de junio de 2025.

Aprobada definitivamente la Ordenanza Municipal de Concesión de Subvenciones y visto que las modificaciones de las bases reguladoras del Área de Euskera adquirieron un carácter definitivo con su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa del 12 de junio de 2025.

Primero. Proceder a la Convocatoria en régimen de concurrencia competitiva para la concesión de subvenciones para la promoción del euskera, para el curso 2024-2025 conforme a lo dispuesto en el anexo VII «Bases para la concesión de subvenciones del Área de Euskera».

Segundo. Podrán optar a dichas subvenciones:

A) Los centros escolares de Hondarrribia que organicen cursos de euskera para menores de 16 años en verano: 9.800 €.

B) Las asociaciones y grupos sin ánimo de lucro que organicen actividades para la promoción del euskera: 7.000 €.

C) Los vecinos de Hondarrribia mayores de 16 años, que hayan realizado cursos, de aprendizaje de la lengua vasca y alfabetización de adultos. También las y los vecinos que hayan realizado cursos de autoaprendizaje, internados de euskera, o cursos de verano de las universidades que se imparten en euskera sobre cultura vasca: 22.000 €.

D) Los establecimientos o negocios que coloquen la rotulación exterior en euskera: 1.800 €.

E) Las asociaciones, empresas etc. que instalen su página web en euskera: 2.000 €.

F) Las personas que hayan realizado cursillo de monitoras y monitores o directoras y directores de tiempo libre o entrenadoras y entrenadores deportivos en euskera: 5.000 €.

Tercero. El importe máximo de las subvenciones a conceder por medio de esta convocatoria asciende a la cantidad de 47.600 euros, con cargo a la partida 1.0204.481.01.335.10 2025 (6154). Este importe está distribuido entre los seis apartados anteriores y en el caso de que se agote el crédito en uno de los apartados y en algún otro haya disponibilidad de crédito por no haber agotado el importe máximo a otorgar se podrá trasladar la cantidad no aplicada, al apartado en el que sea necesario.

Cuarto. Solicitudes:

Se deberá presentar la solicitud de subvención normalizada disponible tanto en la página web del Ayuntamiento de Hondarrribia, como en el SAC y en el Departamento de Euskera. Esta solicitud comprende los siguientes apartados (a rellenar):

– Declaración expresa responsable en la que se hagan constar las subvenciones solicitadas y concedidas en otros departamentos o instituciones.

– Declaración expresa responsable de estar en situación de poder ser beneficiaria o beneficiario de una subvención.

– Presupuesto detallado de los ingresos y gastos del proyecto, programa o actividad.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

– Nortasunaren egiaztagiria (NAN, estatutuak, eraketa-eskriturak, dagokion erregistroak emandako ziurtagiria, eta abar).

– Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

– Udalak kontsulta egingo die zuzenean beste administrazioei eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko. Hala ere, eskatzailea kontsulta horren aurka agertzen bada, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean dituenaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

– Banketxe edo aurrezki kutxak emandako agiria, kontu korrontearen titularrak bera dela egiaztatzen duena.

– Diruz laguntzea eskatzen den proiektu, jarduera edo egitasmoaren memoria.

Horrez gain, C lerroko eskaerak dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

– Ikastaroa ordaindu izanaren faktura eta egiaztagiria*.

– Egindako ikastaroaren aprobetxamendua eta asistentzia % 80tik gorakoa izan dela ziurtatzen duen agiria, euskaltegiak edo ikasketa zentroak berak emana*.

– Hondarribian erroldatuta egotea*.

*Udal Euskaltegiko ikasleek ez dituzte hurrengo dokumentuak aurkeztu beharko:

– Ikastaroa ordaindu izanaren faktura eta egiaztagiria.

– Egindako ikastaroaren aprobetxamendua eta asistentzia % 80tik gorakoa izan dela ziurtatzen duen agiria, euskaltegiak edo ikasketa zentroak berak emana.

– Hondarribian erroldatuta egotea.

Euskara Zerbitzuko teknikariek egiaztatuko dute eskatzaileek baldintza hauek betetzen dituztela.

Bestalde, D lerroko eskatzaileek honako dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute:

– Jarritako errotuluaren kokapena eta argazkia.

– Ordaindutako faktura eta dagokion ordainagiria.

Azkenik, F lerroko eskatzaileek honakoa ere aurkeztu beharko dute:

– Ikastaroa eman duen erakundearen agiria: deskribapen zehatza (tartean, hizkuntza eta homologazioa), ordu-kopurua, prezioa, landutako gaia, asistentzia eta eskatzaileak alderdi teorikoa eta praktikoa gainditu ote dituen adierazi behar du, gutxienez.

Euskara Zerbitzuko teknikariek egiaztatuko dute eskatzaileek baldintza hauek betetzen dituztela.

Bosgarren. Eskabideak elektronikoki aurkeztuko dira Hondarribiko Udalaren web orriko Sarrera Erregistroren bitartez. Horrez gain Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan zehaztutako beste edozein bidetatik ere aurkeztu ahal izango dira.

Bide elektronikoa erabili beharko dute horretara behartuta dauden subjektuek (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14. artikulua): besteak beste, pertsona juridikoak eta iazera juridikorik gabeko erakundeak.

Eskabideak aurkezteko epea, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratzen den biharamunetik hasi eta 2025eko irailaren 15a artekoa izango da.

Seigarren. Euskara Departamentuko Teknikariak aztertuko ditu eskaerak, eta eragin honetarako izendatuko den Balorazio Batzordeak horien proposamenak egin eta ebazteko eskumena duen organoari aurkeztuko dizkio.

Junto con esta solicitud se deberá presentar la siguiente documentación:

– Documento acreditativo de personalidad (DNI, estatutos, escrituras de constitución, certificado emitido por el registro correspondiente, etc.).

– Fotocopia del Código de Identificación Fiscal.

– El Ayuntamiento de Hondarribia recabará directamente de otras administraciones los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social del solicitante. Si este se opusiera, deberá aportar los certificados de estar al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social.

– Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique titularidad cuenta corriente.

– Original del proyecto, actividad.

Además, las solicitudes de la línea C deberán presentar:

– Documento acreditativo de la factura y de haber abonado el importe del curso*.

– Documento acreditativo de aprovechamiento y asistencia a más del 80 % de las clases del curso, expedido por el propio euskaltegi o centro de estudios*.

– Empadronamiento en Hondarribia*.

*Los alumnos del Euskaltegi Municipal no deberán aportar los siguientes documentos:

– Documento acreditativo de la factura y de haber abonado el importe del curso.

– Documento acreditativo de aprovechamiento y asistencia a más del 80 % de las clases del curso, expedido por el propio euskaltegi o centro de estudios.

– Empadronamiento en Hondarribia.

El personal técnico del Servicio de Euskera se encargará de comprobar que los solicitantes cumplen las condiciones.

Por su parte, los solicitantes de la línea D deberán presentar también:

– Ubicación y foto del rótulo colocado.

– Copia de la factura abonada.

Por último, las personas o entidades solicitantes de la línea F deberán presentar también:

– Certificado de la entidad impartidora del curso en el que se haga constar, al menos, la descripción detallada (idioma incluido y homologación), número de horas, precio, materia tratada, asistencia y superación teórica y práctica por parte del solicitante.

El personal técnico del Servicio de Euskera se encargará de comprobar que los solicitantes cumplen las condiciones.

Quinto. Las solicitudes se presentarán telemáticamente a través del Registro de Entrada de la web del Ayuntamiento. También podrán presentarse por el resto de vías detalladas en el artículo 16 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Estarán obligados a presentarlas por la vía telemática las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica, en virtud del artículo 14 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

El plazo de presentación de solicitudes será a partir del día siguiente a la publicación del anuncio de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa hasta el 15 de septiembre de 2025.

Sexto. Las solicitudes serán examinadas por el personal técnico del Departamento de euskera y será la Comisión de Valoración que se designe al efecto quien efectuará las correspondientes propuestas, elevándolas al órgano competente para su resolución.

Zazpigarren. Dirulaguntzak banatzeko irizpideak ordenantzak jasotakoak izango dira.

Zortzigarren. Ebazteko eta jakinarazteko epea 2 hilabetezkoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita, eta pertsona eta/edo erakunde interesdunei jakinaraziko zaie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan ezarritakoaren arabera, ahal dela jakinarazpen elektronikoko bidez.

Ebazpenak bide administratiboa agortzen du.

Bederatzigarren. Eskaera eraberritzeko aukerarik ez du izango.

Hamargarren. Jardueren finantzaketari buruz, eskatzaileak jarduerarako aurkeztutako aurrekontua edo aurrekontu horren ondorengo aldaketak, erreferentzia gisa hartuko dira dirulaguntzak jardueraren amaierako kostuarekiko izango duen behin betiko zenbatekoa zehazteko, eta zenbateko hori jardueraren amaierako kostuarekiko ehuneko gisa hartuko da.

Hamaikagarren. Egindako gastutzat joko da dirulaguntza arautzen duen araudian zehaztutako justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena.

Hamabigarren. Dirulaguntzaren zenbatekoa behin ordainduko da, dagokion organoak dirulaguntza ematea erabakitzen duenean eta onartutako guztiaren % 100 ordainduko da. Ordainketa Dirulaguntzak Arautzeko Udal Ordenantzaren 9. artikulua A eta B puntuetan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren egingo da.

Hamahirugarren. Gainerako guztian, ekainaren 12an, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEKO 110 zenbakian argitaratutako oinarrietan xedatutakoa beteko da.

Hondarribia, 2025eko ekainaren 20a.—Alkatea. (4671)

Séptimo. Las subvenciones se otorgarán según los criterios definidos en la ordenanza correspondiente.

Octavo. El plazo para la resolución y notificación expresa será de 2 meses, contado desde la finalización del plazo de presentación de instancias y se notificará a las personas y/o entidades interesadas conforme a lo establecido en el artículo 41 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, preferentemente mediante notificación electrónica.

La resolución pone fin a la vía administrativa.

Noveno. No hay posibilidad de reformulación de solicitudes.

Décimo. En lo referente a la financiación de las actividades, el presupuesto de la actividad presentado por el solicitante, o sus modificaciones posteriores, servirán de referencia para la determinación final del importe de la subvención, calculándose éste como un porcentaje del coste final de la actividad.

Decimoprimer. Se considerará gasto realizado el que ha sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del período de justificación determinado por la normativa reguladora de la subvención.

Decimosegundo. El abono de la subvención se realizará en único pago y ascenderá al 100 % del total concedido y se hará efectivo tras la aprobación de las subvenciones por parte del órgano competente, tras la presentación de la documentación relacionada en los puntos A y B del artículo 9.

Decimotercero. En todo lo demás se estará a lo dispuesto en las bases publicadas el 12 de junio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa número 110.

Hondarribia, a 20 de junio de 2025.—El alcalde. (4671)